



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abenduaren 11

120. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D erduan ikasteko modua izan dezaten eta Ziraukin Otik 3 urtera bitarteko zikloa euskaraz jar dadin. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziuarta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan. Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztu du (18. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die abenduaren 1ean Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte har dezaten. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, *Diario de Navarra* egunkariaren aurkako eraso dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariko konpromisoen sinesgarritasunari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (21. or.).
- Galdera, iragan azaroaren 21ean kulturaren alde ehunka pertsona mobilizatu izanari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, kultur eskaintzari dagokionez Nafarroa erkidego okerrenetakoen artean egoteari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Fundación Contemporánea plataformak eginiko diagnosiari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraugarriari buruzko Planaren gainekoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainekoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Krisiaren aurkako Plana izeneko kanpainari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Krisiaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (27. or.).
- Galdera, txerri-aziendaren ustategietan minda tratatzeko sistemei buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (27. or.).
- Galdera, Lekunberri-Albiasu saihezbide berriari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea 2006/123/EE Zuzentarauari egokitzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena,
Nafarroan Merkataritza Arautzen
duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru
Legea 2006/123/EE Zuzentarauari
egokitzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Barneko Merkaturako Zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauaren transposizioa egitean, autonomia erkidegoetako

arauak egokitu beharra gertatzen da, zuzentzarauak horien edukian eragina duen heinean.

Aldatu beharreko arauen artean nabarmentzekoa da, merkataritzak Nafarroako Foru Erkidegoaren egitura ekonomikoan duen garrantziarengatik, Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea.

Zuzentarauaren ondorioz egin beharreko aldaketek norabide bikoitza dute, funtsean: merkataritza gune handiak ezartzeko irizpide ekonomikoak kentzea eta izapidetze administratiboa erraztea.

Horrenbestez, lege aldaketa honek bilatzen du azal dutako xedeak betetzea, azal dutako edukia- ren bitartez.

Lehenbizi, printzipio zuzentzaileak eta sustatzaileen betebeharrak aldatzen dira, eta kontzeptu berrien arabera gaurkotzen dira (zerbitzuaren kalitatea), merkataritza-mota ekonomiko baten lehenespen gisa interpreta daitezkeen erreferentziak kenduta.

Bigarrenik, erregulazio zehatz eta berria egiten da saltokiei eta haien ezarpenari buruz, lurralde- antolamenduko eta ingurumeneko irizpideetan oinarritua. Honako alderdi hauek, zehatz esanda:

a) Saltokiaren definizioa. Errazagoa eta objektiboagoa izan dadin nahi da, segurtasun ezeko eta iruzurreko egoerak saihestuz, nola izan baitira poligonoak edo txikizkako eta handizkako jarduerak batera egotea.

b) Saltokiak ezartzeko printzipioak. Europako zuzenbideari egokitutako printzipioak.

c) Merkataritza-erabileraren lurralde antolaketari eta hirigintza antolaketari buruzko araupetzea. Beharrezkotzat jotzen da bai lurralde-antolamenduko tresnek (lurraldearen antolamenduko planak) bai udal planeamenduak merkataritza-erabilerak –bereziki saltoki-baimena behar duten saltokieta- rako merkataritza-erabilerak– ezartzen diren irizpideen arabera arautzea. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago finkaturiko hiri-bilbeak

zehazten direla saltoki horien kokapen gisa; horrek guztiak arrazoi edo funts gisa dauka lurraldean eta ingurumenean, bai eta herritarrari eskaintzen zaion zerbitzuan eta kalitatean, ahal den eragin txikiena eragitea.

d) Zehaztea zer den lurraldean eragina duen saltoki bat, zeinak saltoki-baimena beharko baitu; izan ere, 2.000 edo 1.000 metro dituena izan da, finkaturiko hiri-bilbeetan egon ala haietatik kanpo egon. Parametroa oro har onartuta dago lurraldearen antolamenduan eta ingurumenean duen eraginaren ondorioetarako, eta bereizketa logikoa egitearen ikuspuntutik.

e) Prozedura erraz eta azkarra (gutxieneko izaipideak eta epe laburrak), administrazio-isiltasun positiboarekin erabakirik hartzen ez den kasuetan.

f) Lizentzia erabakitzeko irizpide objektiboak, interes orokorra ardatz harturik.

Hirugarrenik, merkataritzarako ordutegiak arautzen dira, Estatuko oinarrizko legediaren arabera.

Laugarrenik, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea sortzen da. Haren xedea aholkua emateko eginkizunetan eta sustapen lanetan jardutea da, merkataritza dinamizatzeko eta hobetzeko.

Bosgarrenik, merkataritza laguntzeko neurriak aldatzen dira, eraginkortasun handiagoa eta emaitza hobea lortzeko. Horien artean, merkataritza-erakarpeneko planak daude.

Seigarrenik, saltokien errolda aurreikusten da, merkataritza garatzeko funtsezko tresna eta tresna erabilgarri gisa, eta Europako arauen aurkako guttia deuseztatzen da.

Artikulu bakarra. Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzea.

Bat. 2. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“2. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru lege honek hurrengo oinarrizko printzipioak izanen ditu, eta hurrengoak bultzatuko:

a) Nafarroako udaletako hiriguneetan txikizkako merkataritzaren sistemari eustea.

b) Merkataritzaren eskaintzan eta aniztasunean berdintasun eta aniztasun baldintzak betetzea.

c) Merkataritza-jardueren hazkundea harmoniatsua eta orekatua izatea, hiri ingurunean garapen iraunkorra lortzea helburu.

d) Zerbitzuen kalitatean maila handiari eustea.

e) Eragile sozialen –bereziki, kontsumitzaileen– parte-hartzea merkataritzaren garapenean.”

Bj. 5. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“5. artikulua. Txikizkako merkataritzaren jardura eta produkzioa nahiz handizkako banaketaren jardura batera izatea.

1. Foru lege honen eraginetarako, handizkako merkataritza-jardueratzat ulertzen da hartzaile gisa beste merkataria edo enpresari batzuk dituen, amaierako kontsumitzaileez bestekoak direnak.

2. Txikizkako jarduerak eta handizkako jarduerak saltoki berean batera izateak ondorio gisa izanen du saltoki horretako azalera osoa lege honetan ezarritakoei lotuta egotea.

Hiru. 10. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“10. artikulua. Merkataritzako operadorea.

Operadoretzat hartuko da saltoki-baimena behar duen saltoki baten titularra den pertsona fisikoa nahiz juridikoa.

Lau. 12. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“12. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen betebeharrak.

Sustatzaileek eta operadoreek hurrengo betebeharrak dituzte:

a) Saihestu egin beharko dute edozein motatako lehia desleiala edo publizitate engainagarria.

b) Saihestu egin beharko dute monopolio gisa aritzea edo merkatua mendean balute bezala aritzea.

c) Horien kargura izanen dira saltokia jartzearen ondoriozko urbanizatzeko obra guztiak, ingurumeneko eraginak zuzentzeko gastuak ere horien gain izanen dira, eta, halaber, haiek ezarri beharko dituzte, eskaera eta baimenaren arabera, trafikoa antolatzekeo neurriak eta sarbideak.”

Bost. II. tituluko kapituluaren izena eta haien eduki osoa, 13. artikulutik 29. artikulura, aldatzen da. Hona izanen duten testua:

“1. KAPITULUA.

Saltokia: kontzeptua eta motak.

13. artikulua. Kontzeptu orokorra.

Lege honen ondorioetarako, saltokitzat hartuko dira txikizkako salmenta jarduerak, banakakoak nahiz kolektiboak, egien direneko eremu fisikoak, estaliak nahiz estali gabek.

Handizkako eta txikizkako salmenta-jarduerak saltoki berean eta aldi berean egonez gero, 5. artikulua aplikatuz, joko da saltokiaren azalera osoak bete beharko dituela titulu honetan ezarritakoak.

Horretatik kanpo geratzen dira bide publikoak kokatutako saltokiak, toki entitate eskudunen baimena dutenak txikizkako salmenta-jarduera ez-egonkorrean jarduteko.

14. artikulua. Saillapen orokorra.

Txikizkako merkataritza-saltokiak, oro har, banakakoak edo kolektiboak izan daitezke; kolektiboen artean, berriz, honakoak bereizi behar dira: merkataritza-guneak, merkataritza barrutiak eta merkataritza-poligonoak edo -kontzentrazioak.

15. artikulua. Saltoki kolektiboa: merkataritza-gunea, merkataritza-barrutia eta merkataritza-poligonoa edo -kontzentrazioa.

1. Saltoki kolektibotzat jotzen dira, lege honen eraginetarako, enpresa-jarduera independenteen denda-multzo batek osatutakoak, eremu bakarrean nahiz batean baino gehiagotan egon, elkarrekin lotuta egon nahiz ez egon.

2. Merkataritza-gunea da batasun baten moduan kokatutako, pentsatutako eta kudeatutako saltokien, salmenta-guneen edo zerbitzuen multzo bat da.

3. Merkataritza-barrutia merkataritza-eremu berean bildutako saltokien multzo bat da. Merkataritza-eremu batean elkarte dagoela joko da, baldin eta ondoko inguruabarretako bat gertatzen bada:

– Sarbide komuna, bide publikotik, bakarrik edo lehentasunez merkataritza-eremu bateko merkatariek edo bezeroek erabiltzen dutena.

– Aparkaleku partekatuak edo elkarren ondokoak, betez ere merkataritza-eremuko bezeroek erabiltzekoak.

– Merkatarientzako nahiz merkataritza-eremuko bezeroentzako zerbitzu komunak.

– Izen komuna edo barrutiari irudi komuna emanen dioten bestelako elementuak egotea.

4. Merkataritza-poligonoa edo -kontzentrazioa da banakako saltokien nahiz saltoki kolektiboen multzo bat, saltoki horiek hiri-bilbe finkatuetatik kanpo daudenean eta haien artean 300 metro linealeko distantzian dauden txikizkako bi saltoki edo saltoki gehiago daudenean.

Distantzia neurtuko da saltokiaren edozein puntutatik hasi (horren barne direla zerbitzuak eta aparkalekuak) eta beste saltokiaren edozein puntutaraino kontatuta, oinezkoentzako ibilbide arrunt

ahal den laburrenetik joanda edo, oztopo fisiko nabarmenak daudenean, ibilgailuz eginiko ibilbide-tik.

II. KAPITULUA.

Saltokiak ezartzea.

1. atala.

Aplikatu beharreko printzipioak.

16. artikulua. Saltokiak ezartzeko bete beharreko printzipioak.

Txikizkako saltokiak jartzeko edo ezartzeko, honako printzipioak bete beharko dira:

a) Zerbitzuak ematen dituztenak libreki ezartzeko askatasuna eta enpresa-askatasuna merkaturko ekonomiaren esparruan.

b) Zerbitzuen jarduera batean hasteko izapideak eta zerbitzu horietaz baliatzea erraza izatea.

c) Proporzionaltasuna baimenak ematerakoan, interes orokorraren alde.

d) Merkataritza erraztea udaletako hirigunearen barruan; halaber, hiriaren berritzea eta birsortzea erraztea.

e) Egoitza erabileren eta merkataritza-jardueren artean harmonia daukan hiri-eredua indartzea.

f) Merkataritza-jardueren hazkunde harmoniatua eta orekatua izatea, hiri ingurunean garapen iraunkorra lortzea helburu, lurraldearen gaineko ezarpenen eragina ahal den gutxian gutxituz.

g) Mugigarritasuna gutxitzea, azpiegitura publikoak kongestionatzen dituzten eta kutsadura atmosferikoa areagotzen duten beharrik gabeko joan-etorriak saihesteko.

h) Eskaintzaren eta operadoreen aniztasuna bermatzea, eta sektore guztietako herritar guztiei ahal diren aukera zabalenak eskaintzea, bereziki menpekotasun egoeran daudenei.

i) Aurrezkoa eta efizientzia energiaren kontsumoan, eta energia berriztagarriak bultzatzea.

II. atala.

Merkataritza-erabileraren lurralde antolaketari eta hirigintza antolaketari buruzko araupetzea

17. artikulua. Lurraldearen antolamenduko planak.

Lurraldearen antolamenduko planek, nahitaez bete beharreko zehaztapenen artean, lurraldean saltokiak antolatzeke irizpideak ezarri beharko dituzte.

Ezartzen diren irizpideak aurreko artikuluan jasotako printzipioei egokitu beharko zaizkie, zehazki honako irizpide orokorrei:

a) Merkataritzak lehentasunezko ezarpena edukitzea udaletako hirigunean, bereziki merkatarizarako lizentzia duten establezimenduetan.

d) Dotazio osagarria eta etxebizitza-erabilerei eta merkataritza-jardueri lotutakoa.

c) Merkataritza-jardueren lurraldeko ezarpenak daukan eragina gutxitzea, zehazki honako esparruetan: mugigarritasuna, kutsadura atmosferikoa, energiaren kontsumoa eta zoruaren okupazioa.

18. artikulua.- Udal plan orokorrak.

1. Udal plan orokorrek merkataritza-erabilera araberakoak izan beharko dute, eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko Foru Legea ere bete beharko dute, bai eta legedi honetan ezarritako printzipio eta irizpideak eta lurraldearen antolamenduko planak ere.

2. Udal planeamendu orokorrak, merkataritza-erabilera dela eta, honako determinazio zehatzak bete beharko ditu:

1 Aldaketa honek indarra hartu eta urtebeteko epean, administrazio eskudunek planeamendu orokorra aurreikuspen honen arabera egokitu beharko dute, eta hiri-bilbea finkatuak eta saltoki handiaren berariazko erabilera jaso beharko dute.

a) Finkatutako hiri-bilbeak mugatzea. Finkatutako hiri-bilbea osatuko dute hirigune historikoen, zabalguneen eta etxebizitza kolektiboak dituzten egoitza-eremuek, azken horiek hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian daudenean, era jarraituko eraikinekin, onartutako egoitza-erabilera nagusi batekin eta 250 etxebizitzako edo 600 biztanle erroldaturen dentsitatearekin.

b) Saltoki handiaren erabilera berariazkoa, aurreikuspenen arabera baimena behar duten eta 19. artikuluan jasota dauden saltokien ezarpena gaitzen edo baimentzen denean. Erabilera hori esleitua ez duten lurzoruetan, berriz, ezin izanen da baimenik eman.

c) Merkataritza-erabilera dotazio bat, etxebizitzaren eraikin bateko etxabeetan jarria, etxebizitza bakoitzeko gutxienez ere 3 metro koadrokoa. Finkatutako hiri-bilbearen kasuan, gutxienezko dotazio horrek ezin izanen ditu barnean hartu merkataritza-lizentzia behar duten establezimenduak.

d) Erakartzeko plana eta saltokien antolamendua. Hiriguneetako eta dentsitate demografiko handiko etxebizitza-esparruetako merkataritza guneak irisgarriago egiteko, mugigarritasuna dela-

eta egokitzeko, edertzeko eta hirigintzaren aldetik hobetzeko berariazko neurriak. Planek oroitidazkia, determinazioak eta neurriak eta berariazko programazioa bilduko dute.

3. Saltoki handiaren berariazko erabilera aurreikuspena honako berariazko arau hauek beteko ditu:

a) Finkatutako hiri-bilbeetan baino ezin izanen da ezarri.

b) Planeamendua jasoko duen dokumentazioak azpimarra berezia jarri beharko du 16. eta 17. artikuluetan jasotako irizpideetan eta printzipioetan.

III. atala. Saltokia baimentzea

19. artikulua. Saltokiak baimena behar izatea.

1. Saltokiak ezartzeko, oro har, ez da baimenik beharko.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, saltoki-baimena beharko dute aurreko artikuluetan deskribatutako saltokiek, baldin eta salmentarako eta produktuak eta zerbitzuak erakusteko 2.000 metro koadro baino gehiagoko azalera baldin badute, finkaturiko hiri-bilbearen kasuan. Gainerako lurzoruetan, saltoki handitzat hartuko da, eta 18.3.a) artikuluen arabera ezin izanen da ezarri, 1.000 metro koadro baino gehiagoko azalera duena.

3. Halaber, saltoki-baimena beharko dute lehen ere baimena behar zuten saltokien aldaketek, baldin eta aldaketa horien ondorioz merkatarizarako azalera handitzen bada.

4. Ez dute saltoki-baimenik beharko ibilgailuen eta erregaien salmentarako saltokiek, lorezaintza-koek eta eraikuntzarako materialetarako saltokiek, ez eta muga-eremuetan daudenean ere.

5. Produktuak saldu eta erakusteko azaleratzat edo zerbitzuak erakusteko azaleratzat hartuko da produktuak erakusgarri izaten dituen, ohiz ala noizik behinka, bai eta pertsonen pasabide diren lekuak, eta, orobat, produktuak aurkeztu, eman eta kobratzeko diren lekuak. Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, aparkalekuak, jendeak bisita ez ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku edo instalazio guztiak.

20. artikulua. Saltoki-baimena lortzeko eskaria.

1. Saltoki-baimena lortu nahi duten interesdunek behar den eskaria aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuan merkataritzaren arloan

eskuduna den departamentuan. Eskariarekin batera, foru lege honetan zehazten den dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

Merkataritza-kontzentrazioen kasuan, bere ezarpenarekin aurretik dauden ezarpenak batu ondoren legez ezarritako azalera gainditzen duen interesdunak aurkeztu beharko du baimenerako eskaria.

2. Eskaria behar den bezala sinatuta aurkeztuko da eta, interesdunen ordezkariak dauden kasuetan edo interesdun anitz dagoenean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

3. Eskaria bide telematikoa erabiliz aurkeztu ahalko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko 11/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

4. Interesdunek, eskabidean, adierazi ahalko dute posta elektronikoko zein helbidetan jaso nahi dituzten kasuko jakinarazpenak. Kasua bada, Administrazioak behar diren jakinarazpenak egiten ditu, 11/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

5. Interesdunek eskariak aurkezteko bide telematikoa aukeratzen baldin badute, eskariaren ale bat baizik ez dute aurkeztu beharko, eta behar den dokumentazioa erantsi beharko dute. Baldin eta eskaria aurkeztu izana ziurtatuko duen eskariaren kopia zigitatua lortu nahi badute, eskariaren beste kopia bat aurkeztu beharko dute, bai eta erantsitako dokumentazioaren ale bakoitzaren kopia bat ere.

6. Interesdunek, eremu euskaldunean, aukera izanen dute, otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuan araututakoaren arabera, eskaria gaztelaniaz, euskaraz edo elebitan aurkezteko.

7. Eskaria, erantsi beharreko dokumentu guztiak edo erantsi beharreko dokumenturen bat Europako Batasuneko hizkuntza ofizialen batean aurkeztu nahi duten interesdunek dokumentu horien gaztelaniazko itzulpena zinpekoa izan gabe ere aurkeztu beharko dute.

21. artikulua. Saltoki-baimena lortzeko eskariari erantsi beharreko dokumentazioa:

1. Interesdunek saltoki-baimenerako eskarian beren identifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bai eta arau honetan zehaztutako dokumentazio tekniko eta administrazioa ere.

2. Honakoa izanen da eskatzailearen edo interesdunaren identifikazioari buruzko dokumentazioa.

– Eskatzailea pertsona fisiko bat denean, NANaren kopia konpultsatua erantsi beharko da.

Eskatzailearen NANean agertzen den helbidea helbide fiskalaz beste bat denean, gainera, helbide horren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

– Eskatzailea pertsona juridikoa denean, honakoak aurkeztu beharko dira:

- Entitatearen eratzeari buruzko notarioaren eskritura, bai eta eskritura hori aldatzeko geroan egiletsi diren gainerako eskriturak ere, halakorik balitz.

Aurkezten diren eskrituren kopiek kasuko erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta inskripzio hori egiaztatuta beharko da.

Eratzeari buruzko eskrituran edo haren ondorengo aldatze-eskrituretan agertzen den eskatzailearen helbidea bere helbide fiskalaz beste bat denean, gainera, helbide horren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

- Entitate eskatzailearen izenean agertzen denaren ordezkari-ahalordeari buruzko notario-eskritura.

- Bidezkoa den kasuetan, Administrazioaren organoak edo entitate eskatzailearen eskumen asimilatutako organoak emandako ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan, entitatearen kalifikazioaren berri emanen da, hain zuzen ere enpresa txikia edo ertaina den, eta haren akzioen osaeraren berri ere emanen da, eskaria aurkezten deneko egunari dagokiona.

3. Honakoa izanen da exijitzekoa den dokumentazio tekniko eta administrazioa:

a) Oroitidazkia eta oinarriko proiektua, teknikari eskudunak sinatua, arau hauen arabera eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren arabera exijitzekoa zaion gutxieneko edukiarekin.

b) Eraikina kokatu nahi den lurralde-eremuari dagokion udalaren txostena, egin nahi den hirigintza-planeamenduaren erabilerarekin eta proiektuarekin ados dagoela adierazten duena.

c) Eraikina edo eraikinak ezarri nahi diren lur-sailak horretarako erabil daitezkeela behar adina ziurtatuko duen dokumentazioa.

d) Teknikari eskudunak sinaturiko azterlana, proiektuaren eraginak sorrazitako mugigarritasu-

na eta mugigarritasun horrek ekarritako CO₂ren emisio atmosferikoak ebaluatuko dituen.

Azterlanak osotasunez baloratu beharko du proiektuak sorrarazitako mugigarritasuna eta, gainera, mugigarritasunaren ondoriozko CO₂ren emisio atmosferikoei buruzko gutxi gorabeherako kalkulua bat ere jaso beharko du, AMBIMOB tresna erabiliz. Emisio atmosferikoei buruzko kalkulua, nolana ere, honako informazioa azalduko du: joan-etorriaren batez besteko distantzia; aurreikusitako ibilgailu-kopurua; ibilgailu motak/km banaketa; kongestionatutako bideetan –nagusietan nahiz bigarren mailakoetan– egonen diren joan-etorrien ehunekoaren kalkulua; ibilgailu motaren araberrako batez besteko abiadura.

e) Nafarroako Gobernuak energiaren arloko departamentu eskudunak emandako ziurtagiria, egiaztatzeko proiektua energia aurrezteko gomen-dagarrienak diren irizpideekin diseinatu dela.

f) Ingurumen eraginaren azterlana eta, kasu bada, ingurumen eraginari buruzko adierazpena, betiere Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean eta hura garatzeko arauetan erregulatutakoari jarraituz.

g) Eskatzaileak emandako ziurtagiria, zehazteko, behin saltokia ezarri ondoren, saltokiaren eragin-eremuan salmentarako azalera zenbateko ehuneko izanen duen.

h) Sortzen den tasari dagokion zenbatekoa ordaindu izanari buruzko ziurtagiria.

4. Interesdunak ez ditu aurkeztu beharko jada merkataritzaren arloko eskumenak dituen Nafarroako Gobernuak departamentuaren eskuetan dauden dokumentuak, baina, behar izanez gero, departamentu horri dokumentuak aurkitzeko behar diren datu guztiak eman beharko dizkio.

5. Interesdunak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu ahal izanen du aurreko ataleko b), c), g) eta h) ataletan zehaztutako dokumentuak lortu ez izana.

22. artikulua. Saltoki-baimena lortzeko eskaria izapidetzeko onartzea.

1. Organo eskudunak egiaztatuko du interesdunak aurkeztutako dokumentazioa foru lege honetan eskatzen dena dela.

2. Aurkeztutako dokumentazioa legez exijitza dena baldin bada, ebazpen bat emanen da saltoki-baimenaren eskaria izapidetzeko onartzeari buruz.

3. Interesdunak exijitza den dokumentazioa aurkeztu ezean, Administrazioak huts hori zuzentzeko errekerimendua eginen dio, eta gutxienez ere 10 eguneko epea emanen dio horretarako.

Administrazioak errekerimendua egin ondoren eta interesdunak hura aintzat hartzen ez badu, Administrazioak baimena ezesteko ebazpena emanen du, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. Eskaria bestelako izapidetik gabe ezetsi ahal izanen da, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta interesdunari entzun ondoren, ondorioztatzen denean nabarmen urratzen direla legedia eta lurralde antolamendu indarduna.

5. Egokitza jotzen badu, Administrazioak interesdunari, irizpenak edo txostenak sinatzen dituzten teknikariei eta eraikina egin nahi den udal dermioko toki administrazioari errekerimendua egin ahal izanen die, aurkeztutako dokumentuak argitu edo osa ditzaten, eta horretarako epe bera emanen die.

Errekerimendua interesdunari zuzenduz gero, hura ez betetzeak aurreko idatz-zatian zehaztutako akats-zuzenketa ez betetzeak izanen litzkeen eragin berak izanen litzuke.

Errekerimendua toki administrazioa zuzenduz gero, berriz, epea errekerimendu hori bete gabe iraganez gero, ebazteko epea deuseztatu eta beste errekerimendu bat igorriko zaio, epe berdinarekin. Bigarren errekerimenduari ere erantzunik ematen ez bazaio, prozedurak bere bidea eginen du eta administrazio eskudunak gaitasuna izanen du langile arduradunei diziplina-erantzukizuna exijitzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

23. artikulua. Ebazpen proposamena, interesdunari entzunaldia ematea eta informazio publikoa.

1. Espedientea izapidetzen duen organo eskudunak, eskabidea izapidera onartu ondoren, autonomia-erkidegoan lurraldearen antolamenduaren eta ingurumenaren arloan eskumenak dituzten departamentuen txostenak jaso eta ebazpen proposamena eginen du.

2. Ebazpen proposamena arrazoiduna izanen da, eta honako pronuntziamentu hauetako bat jaso beharko du:

– Saltoki-baimena ematea egokitza jotzea.

Kasua bada, eskatzaileari baldintzak edo zuzenketa ezarri edo gomendatu ahal izanen zaizkio.

– Saltoki-baimena ematea egokitzat ez jotzea.

3. Ebazpen proposamena interesdunari edo haren ordezkariari jakinaraziko zaio, eta hamabost eguneko epea emanen zaio egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

4. Halaber, ebazpen-proposamenaren pronuntziamentua Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eraikina egin nahi den udaleko iragarkien ohelean eta foru erkidegoko bi egunkari zabalduenetan argitaratuko da, eta balizko interesdunei hamabost eguneko epea emanen zaie egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

24. artikulua. Ebazpena.

1. Nafarroako Gobernuko merkataritzaren arloko kontseilari eskudunak, eskaria eta harekin batera dokumentazio eta izapide guztiak aztertu ondoren, ebazpena emanen du, saltokirako baimena baiesteko nahiz ezesteko.

Baimenaren ezespina ezin izanen da arbitrarioa izan. Arbitrarioa dela joko da baldin eta ezespina baztertzaila, desproporzionatua, nahasgarria edo subjektiboa bada edo eskatzaileak, bere eskaria egin aurretik, ezagutzerik izan ez duen arrazoi edo irizpideengatik eman bada.

2. Ebazpena emateko eta interesdunari jakinarazteko epea 6 hilekoa izanen da, eskaria aurkezten denetik hasi eta exijitzekoa den dokumentazioa aurkezten den arte kontatuta. Aurkezpena akastuna bada, epea akatsa zuzentzen den unetik hasiko da kontatzen.

3. Administrazio eskudunak ebazteko epea behin bakarrik luzatu ahalko du espedientearen konplexutasuna dela-eta hala behar den kasuetan, eta luzapen hori hiru hilabetekoa ere izan ahalko da.

Administrazioak berariaz arrazoitu beharko du epea luzatzeko gaikuntza ematen duen arrazoiak, eta epe horren luzapena hasierako epea amaitu aurretik jakinarazi beharko dio interesdunari.

4. Epea iragaten bada organo eskudunak behar den ebazpena eman gabe, baimen-eskaria administrazio-isiltasun positiboaren bitartez baietsi dela joko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak horri buruz ezartzen dituen mugekin.

5. Ebazpenak amaiera emanen dio bide administrazioari eta loteslea izanen da geroan aurkez daitekeen edozein lizentzia-eskari ezesteko.

6. Ebazpena, gainera, NAO-n, eraikina egin nahi den udaleko iragarkien ohelean eta foru erkidegoko bi egunkari zabalduenetan argitaratuko da.

25. artikulua. Saltoki-baimena baiesteko nahiz ezesteko irizpideak.

Saltoki-baimena baiesterakoan nahiz ezesterakoan, honako irizpideak eta alderdiak baloratu beharko dira:

– Lege honetan, lurralde antolamenduko planetan eta udal plan orokorretan ezarritako irizpideekin bat ote datorren.

– Proiektuak hiri-ingurunean eta hiri-esparruan duen eragina.

– Lurraldeen arteko oreka.

– Ingurumenean duen eragina. Ingurumenaren arloko arau sektorialen arabera ebaluatuko da. Halaber, eragindako mugigarritasunetik heldu diren CO₂ren emisio atmosferikoen kalkulua hartuko da kontuan; izan ere, proiektua kokatuta dagoen eremuko emisioen batez bestekoaren % 20az azpikoak izan beharko dute.

– Bide-sarea eta irisgarritasuna. Horretarako bereziki hartuko dira kontuan bide publiko kolektiboaren bitartez iristeko modua egotea eta joan-etorriak larriago ez bihurtzea. Behar adinako bide publiko eta proportziozkoak (mugigarritasun azterlanean aurreikusitako neurketaren % 30) ez egoteak lizentzia ezestea ekarriko du.

– Hondakinen kudeaketa, eragin akustikoa, energia iturriak eta energiaren kontsumoa.

– Merkataritza-kokapena eta formatuen aniztasuna, herritarrei ahal den aukera gehien bermatze aldera.

26. artikulua. Saltoki-baimenaren indarraldia.

Saltoki-baimenak mugarik gabeko indarraldia izanen du, hurrengo artikuluan araututako salbuespen bakarrarekin.

27. artikulua. Saltoki-baimenaren iraungitzea.

1. Nafarroako Gobernuko merkataritzaren arloko organo eskudunak saltokirako baimenaren iraungitzea deklaratu du baldin eta, behin hura eman ondoren, hiru urte baino gehiago iragaten badira interesdunak jarduera hasi gabe, betiere hari egoztekoa den arrazoiaren batengatik.

2. Baimenaren iraungitzeari buruzko deklarazioak espresa beharko du izan, eta interesdunari entzunaldia eman ondoren emanen da.

3. Baimenaren iraungitzeari buruzko deklarazioa interesdunari eta jarduera kokatu nahi zen dermioko udalari jakinaraziko zaie.

28. artikulua. Saltoki-baimena eskualdatzea.

1. Saltoki-baimena behar duten saltokiak eskualdatzeko, Nafarroako Gobernuko merkataritzaren

arloko departamentu eskudunari jakinarazi behar-ko zaio aurretik.

2. Interesdunak, aurreko idatz-zatian araututa-ko komunikazioarekin batera, lehiaren defentsaren arloan exijitzen diren betebeharrak betetzen ditue-la egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

29. artikulua. Tasa.

1. Saltoki-baimenaren eskariak honako tasa hau sortuko du: proiektaturiko erakustokiko eta salmenta-guneko azalera erabilgarriko metro koa-dro bakoitza bider 200 euro egitearen emaitza.

2. Tasa hori kasuko eskariarekin batera ordain-du beharko da. Tasa ez ordaintzeak prozedura ez abiatzea ekarriko du.

3. Lege honetako 22.4 artikulua araberak eskaria izapidetzeko ez onartzeari buruzko eraba-kiak ordaindutako tasa itzultzea ekarriko du.”

Sei. 32. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“32. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

Saltokiak lanegunetan eta jarduera garatzeko gainerako egunetan irekitzeko eta ixteko ordutegi-an gehienez ere hamabi ordu egonen dira, eta salt-zaile bakoitzak libreki hautatuko ditu, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubideak ezertan kalte gabe.

Beren jarduera garatzeko saltokiek asteko lanegunetan izanen duten ordutegi orokorrak ezin izanen du 72 orduko kopurua gainditu.”

Zazpi. 33. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria.

“33. artikulua. Jaiegunetako ordutegia.

1. Igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodu-nak izanen Nafarroako Foru Komunitatean merka-taritzaz-jardueran aritzeko, berariaz baimendutako-ak izan ezik.

2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak urtero, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatokiari entzun ondoren eta urteroko abenduaren 15a baino lehen, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaie-gunak. Zortzi izanen dira egun balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.

3. Egutegia departamentu horren foru agindu baten bidez aldatu ahal izanen da, kasuko udal dermioetan interesdunak diren udalek bi hilabete-ko aurrerapenarekin aurkeztutako eskari arrazoitu bat aurkeztuta.

4. Udal interesdunen Osoko Bilkurak jaiegun batzuk trukatu ahal izanen ditu, lan egutegian jasota egon baina herriko jaiak ospatzen diren egunak hautatuz. Udalak merkataritzaren arloko zuzendaritza nagusiari jakinaraziko dio bere era-bakia, hilabeteko aurrerapenarekin. Truke horri buruzko publizitatea udal administrazioak berak egingen du, udal barrutiko merkatariek eta kontsu-mitzaileek horren berri izan dezaten.

5. Jaiegunetako irekitzeko eta ixteko ordutegia merkatariak libreki finkatuko du, baina ezin izanen du eguneko hamabi orduko kopurua gainditu.”

Zortzi. VIII. tituluko eta 63. artikuluko izenburu-ak aldatzen dira. Hona testuak:

“VIII. TITULUA.

Nafarroako Txikizkako Merkataritzarako Behatoki Aholku-emailea

63. artikulua. Kontseiluaren eratzeta eta osaera.

1. Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Beha-toki Aholku-emailea eratzen da, Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretarako duen organo ahol-ku-emaile gisa. Haren osaera, antolaketa eta fun-ctionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

2. Honakoak izanen dira Behatokiaren eginki-zunak:

a) Arloko administrazio eskudunek merkatarit-zari buruz eskatutako txostenak eta kontsultak egitea.

b) Merkataritza-sektorearen gaineko foru lege proiektuei buruz eta Nafarroako Gobernuaren gai-nerako xedapenei buruz informazioa ematea.

c) Urtero Nafarroako Foru Komunitatearen mer-kataritzaren egoerari buruzko txosten bat egitea, eta bereziki sektorea modernizatzeko planen gara-penaren jarraipena egitea. Halaber, udal planetan sarturiko erakarpen planen jarraipena egitea.

d) Nafarroako saltokien errolda sustatzea eta haren mantentze zuzena garatzea, merkataritza lurraldean izanen duen banaketa egokiaren jarrai-pena egiteko tresna gisa, betiere sektorea orde-zkatzen duten entitateekin eta Nafarroako toki enti-tateekin lan eginez.

e) Lurraldearen antolamenduko planen merka-taritzaz-banaketaren printzipioak bete daitezen sus-tatzea eta lege honetako printzipioak lurralde-ekin-tzako planen idazketan integratzea.

f) Saltoki txikiak babesteko neurrien garapena sustatzea, hura laguntzeko planak garatuz lau urtez behin egin beharreko modernizazio eta lehiakortasun planen bitartez.

g) Nafarroako toki entitateei zuzendutako merkataritza ekintzako planen garapena sustatzea. Plan horiek erregio mailako ardatz-gune eta erregio-azpiko ardatz-gune gisa definituko dira Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Planaren barruan, betiere dentsitate handiko bizitoki-eremuetan eta 4.500 biztanletik gorakoetan.

h) Erregelamendu bidez ezarritako bestelakoak.

3. Kontseilu Aholku-emailean behar bezala ordezkaturata egonen dira Nafarroako Foru Komunitatean sektoreko ordezkariak duten eragile ekonomiko eta sozialak; alegia, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Merkataritza Elkartearen Federazioa, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, eta sektorean presentzia duten erakunde sindikalak.

4. Nafarroako Merkataritzaren Kontseilu Aholku-emailea Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari atxikiko zaio.

5. Nafarroako Gobernuak behar diren bitarteko ekonomikoak jarriko ditu Merkataritzaren Behatoki-kideek eskatutako azterlan eta txostenak garatzeko eta, bereziki, ordezkariak duten eragile ekonomiko eta sozialek sektorea laguntzeko proposaturiko neurriak lortze aldera interesekoak diren azterlanak egiteko.

Bederatzi. 76. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria.

“76. artikulua. Helburuak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako jarduerak helburu izanen dute merkataritza-formula desberdinen arteko oreka bilatzea eta merkataritza-sektore tradizionala eta haren lehiakortasuna mantentzea, bultzatzea eta modernizatzea, lehia libre ezartzen kaltetu gabe. Horiezaz gainera, beste helburu hauek ere izanen dituzte:

a) Banaketaren arloko enpresa txiki eta ertainen gaitasun teknologikoa hobetzea.

b) Nafarroako herriguneeen eta 4.500 biztanletik gorako eta dentsitate handiko eremuetako bizitoki- en hiri-bilbean kokaturiko merkataritza txikiaren eta ertainaren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea.

c) Saltoki txikien eta ertainen enpresa-integrazioa sustatzea, sektoreko eta tokiko enpresa taldeetan, erosketa-zentraletan eta enpresa-integratziarako bestelako moduetan.

g) Nafarroako udaletan merkataritza-erakarpeneko planen garapena sustatzea. Plan horiek erregio mailako ardatz-gune eta erregio-azpiko ardatz-gune gisa definituko dira Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Planaren barruan, betiere dentsitate handiko bizitoki-eremuetan eta 4.500 biztanletik gorakoetan.

e) Enpresen dibertsifikazioa sustatzea eta kalitate eta prestakuntza planak bultzatzea, bereziki bezeroaren arretari dagozkionak, enpresa txikiaren bereizgarri gisa.

f) Espezializazioarako, modernizazioarako eta kudeaketa hobetzeko neurriak eta tresnak sustatzea.

2. Helburu horiek garatzeko, Nafarroako Gobernuak, erakunde sozial, enpresarial eta profesionalen ados jarrita, merkataritza txikia laguntzeko plan bat prestatuko du. Plan horretan, besteak beste, foru lege honetan jasotako laguntza-neurriak jasoko dira.

Hamar. 77. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria.

“77. artikulua. Laguntza neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak, behar den erregelamendu bidezko garapenaren bitartez, merkataritzaren sektore zabalduko ditu sektore industrialerako dauden laguntzak –esate baterako, inbertsioa eta enpleguaren sorrera sustatzea–, Nafarroako merkataritza txikia eta ertaina laguntzeko planetan aurreikusitako laguntza- eta lehiakortasun-neurriak garatzearen bitartez.

2. Nafarroako Gobernuak, eragile eta erakunde enpresarialekin batera, prestakuntza orokorreko plan bat egingen du, lanerako prestatzeko beharrei eta langileak birziklatzeko beharriari eta enpresa kudeaketa hobetzeko prestakuntza berariazkoa izateko beharriari erantzuteko.

3. Nafarroako Gobernuak behar diren jarduerak egingen ditu saltoki txikien elkarteak sustatzeko, Nafarroako herrietako hiri-bilbea dinamizatzeko eta sektoreko modernizazioa laguntzeko bide gisa.

4. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako toki entitateekin eta merkataritza-erakarpeneko planak garatuko ditu, Nafarroako herrietako merkataritzaren erakarpenean antolatzen, dinamizatzeko eta hobetzeko, horren barne direla irisgarritasunerako, mugigarritasunerako eta enpresa-ehunaren dinamizazioarako planak.

5. Nafarroako Gobernuak behar diren ekimen eta jarduerak abiaraziko ditu sektore nazioan edo erkidegoan dauden programetara eta baliabide-

tara erraztasunez eta osotasunez iristeko, beste eremu batzuetan dauden laguntzak eta finantzazioa homogeneizatzeko xedez.

6. Egun dauden merkataritza ekipamenduen modernizazioa sustatzeko eta saltoki handien kokapenak ukitutako merkataritza-eremuen gaineko jarduera-programak egiteko, Nafarroako Gobernuak Nafarroako tokiko tributuei buruzko legedi propioa alda dadin bultzatuko du, eta horretarako, behar diren sustapen neurriak eta integratutako administrazio eta entitateekiko itunak sustatuko ditu.

Tributu horiekin biltzen den dirua hiri-merkataritza berritzeko eta hobetzeko programetara bideratuko da, lurraldearen antolamenduko jarraibideen arabera hartarako prestatzen den merkataritza-jarduerarako planean ezartzen diren lehentasunekin eta helburuekin bat.

Hamaika. Bosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean saltokien titularrak diren pertsonen eta edozein eratako izaera juridikoko entitateek horren berri eman beharko diote saltokien eroldari. Horretarako komunikazio bat igorri beharko diote autonomia erkidegoko kudeaketa bateratuko bulegoari edo sektorea ordezkatzeko duten eta lurraldean behar adinako presentzia duten enpresa-elkarteei. Elkarre horiek aldeztatik entitate laguntzaile gisa gaitu beharko ditu merkataritzaren arloko eskume-

na duen departamentuak. Erroldarako eginiko komunikazioak erregelamendu bidez ezartzen diren moduaren eta baldintzen arabera egin beharko dira.

Gobernuak behar diren baliabide ekonomikoak jarriko ditu Nafarroako saltokien errolda garatzeko eta gaurkotuta edukitzeko.”

Xedapen gehigarria.

Aldaketa honek indarra hartu eta urtebeteko epean, administrazio eskudunek planeamendu orokorra aurreikuspen honen arabera egokitu beharko dute, eta hiri-bilbe finkatuak eta saltoki handien berariazko erabilera jaso beharko dituzte.

Xedapen indargabetzaile.

Indarrak gabe uzten dira aldaketa honetan ezarritakoari aurka egiten dioten lege edo erregelamenduzko xedapen guztiak, bereziki honakoak:

a) Nafarroan Merkataritza Arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 7.2, 12.a), 30., 31., 51., 52.2.b), 53., 54. artikulua eta 57. artikulutik 62. artikulura bitartekoak.

b) Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduaren Erregelamendua onesten duen martxoaren 29ko 150/2004 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko otsailaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proposamena

2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta bideragarritasun plan bat aurkeztu arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta onesteko:

Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. Enpresako zuzendaritzak iragarri zuen plantillako 690 langileetatik 90 kaleratuko zituela. Langileetatik 370 kooperatiba-kideak dira eta, gainerakoen artean, hau da, kooperatiba-kide ez direnen artean irtengo da langile-soberakina.

Langileen ordezkariak, langileen balizko kanporatzeak arbuiatu zituzten eta enpresari eskatu zioten bideragarritasun plan bat presta zezan eta

enpresaren etorkizuna ziurtatuko duten inbertsioak egin ditzan.

Langileak gogora ekarri dute Fagor Ederlanek Tafallan duen lantegiaren egoera; izan ere, kooperatiba-bazkideek 13.000 euro jarri dituzte eta gainerako langileek soldata izoztea eta 2 enplegu-erregulazioko espediente onartu zituzten, haien ordainsariak ehuneko 10 eta 20 artean murrizteaz gain.

Langileek, zeinetatik erdia kooperatiba-kide baita, eskatzen dute makinak berritzeko, lantegia bideragarria izan dadin. Horretarako, badirudi enpresa finantza-abalak negoziatzen ari dela Nafarroako Gobernuarekin, negozioa modernizatzeko eta negozio-lerroak zabaltzeko inbertsioak egin ahal izateko. Halaber, enpresak agindu zuen inbertsio garrantzitsuak eginen zituela, baina gaur egun inbertsio horien egin gabe daude.

Hilabeteak dira enpresa langileekin negoziatzen ari dela, baina ez dira ados jartzen enpresaren borondate faltagatik.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaion finantza-abalik eman Tafallako Fagor Ederlan S. Coop. enpresari, harik eta inbertsio zehatzak eta hurrengo urteerako negozioaren garapena jasoko dituen bideragarritasun plan bat aurkeztu arte.

- Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da aipatu abalak emateko baldintza gisa jar dezan langilerik ez kaleratzea eta Enpresa Batzordearekin egiazko negoziazio-prozesu bat abian jartzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 20an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jarritzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten eta Ziraukin Otik 3 urtera bitarteko zikloa euskaraz jar dadin.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jarritzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten eta Ziraukin Otik 3 urtera bitarteko zikloa euskaraz jar dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendáriz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken urteotan, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak D ereduan egin ahal izateko eskaria hazi egin da Nafarroako eremu mistoan. Horren eragina hain garrantzitsua izan da, non eremu ez euskaldunean, eremu mistoarekin muga egiten duten herrietako guraso askok beren seme-alabak eremu mistoan matrikulatu dituzten, euskaraz ikasteko erabakia gauzatu ahal izateko.

Egoera horrek bere horretan jarraituko du Beriainen, Artazun, Ziraukin, Girgillaon, Villatuertan eta Mañerun, udal horiek ez baitira sartu Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko eremu mistoaren mugaketa berrian.

Egoera hori nabarmenki zuzengabea da ikuspuntu sozialetik eta logikarik gabekoa hezkuntza plangintzaren ikuspuntutik. Ez dirudi egokia denik neska-mutilen talde handi bat behartzea egunero beste herri batzuetara joatera, baldin eta behar diren baldintzak baldin badaude beren herrian bertan euskaraz ikasteko modulu bat jartzeko.

Ikusita Euskarari buruzko Legeak berak ez diola Foru Administrazioari eragozten euskaraz ikasteko eskariari erantzun ahal izatea behar adinako eskaria dagoen eremu ez-euskalduneko herrietan, honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak hartzera Beriain herrian D ereduko irakaskuntza ahalbidetu dezan. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraiorako eta jantokirako dirulaguntzak eman diezazkien beren seme-alabak beste herri batzuetako D ereduko ikastetxeetara bidaltzen dituzten familiei, euskaraz ikasteko eredu hori ezartzen ez den bitartean. .

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea bideragarria den Ziraukin Otik 3 urtera bitarteko zikloa euskaraz jartzea, Artazuko, Girgillaoko eta Mañeruko biztanleen eskariari aurre egin ahalko baitzukeen.

Iruñean, 2009ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan.

Zainketa aringarriak dira minbizia nahiz beste-lako prozesu kroniko batzuk fase aurreratuan edo azken fasean dituzten gaixoak artatzeko oinarrietako bat. Antza denez, Espainian, eta horrenbestez, baita Nafarroan ere, urtero hiltzen diren pertsonen erdiak baino gehiagok pairatzen dute gaixotasunaren fase aurreratu eta terminal bat.

Erakundeei dagokie erantzun egoki bat ematea gaixo bakoitzaren eta maite dituen pertsonen beharrezan —fisikoei, emozionalei, sozialei nahiz espiritualei—, eta horrek erronka handia dakar, are gehiago sistemaren erantzun integral eta koordinatu bat eman nahi baldin bazaie, behar duten unean eta tokian eman ere, laguntza hori behar duten gaixo guztiei.

Nafarroan onkologiako zainketa aringarriak behar dituzten gaixoentzako laguntza-eredua ona

da oro har, emaitza oso onak lortzea ahalbidetzen duelako, baliabideak behar bezala baliatuta.

Eredua oso garbia da: Oinarrizko Osasun Laguntza arduratzen da gaixoaz, eta San Juan de Dios ospitalean badira zainketa aringarrien ekipiak, laguntza espezializatua ematen duena Nafarroa osorako.

Badira bi gertaera zainketa aringarrien jardueira sendotu dutenak, jarduera horretara bideratzen diren giza baliabideak arian-arian indartzeaz gainera:

- Tuteran Zainketa Aringarrien Unitatea ireki izana.

- Laguntza psikosozialeko ekipiak sortu izana (laguntza psikosoziala ematen diete gaixoei nahiz haien familiei eta, behar izanez gero, profesionali).

Zainketa Aringarriari buruzko Nafarroako Plan Estrategikoa 2004koa da. Plan horretan azaldu ziren erronka asko gainditurik daude gaur egun, eta beste zenbait ageri dira, berriz, Osasun Sistema Nazionalaren Zainketa Aringarrien Estrategian, zeina Nafarroako Foru Komunitateak ere sinatu baitzuen.

Nafarroan zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat taxutu beharra dago, dagoena gaurkotzeko eta etorkizunari begira azaltzen diren erronkei erabakitasunez ekiteko: onkologiaz beste-ko zainketa aringarriari arian-arian heltzea, une honetan duguna sendotzeaz gainera.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat taxutu dezan Nafarroan, Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalen, laguntza espezializatuko profesionalen eta San Juan de Dios Ospitaleko langileen parte-hartzearekin.

Iruñean, 2009ko azaroaren 25ean

Eleduna: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesteko Foru Dekretuaren aurreproiektuaren berri izan dugu.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea 2006an onetsi ondotik, Gizarte Zerbitzuen Zorroa garatu da, zeina aurrerabide garrantzitsua baita prestazioak ziurtatzeko.

Prestazio horiek Foru Komunitate osoan ziurtatu beharra dago, eta legez exijitzeko modukoak dira, herritarrek egoera pertsonalaren arabera behar duten zerbitzua jasotzeko eskubide den aldetik.

Legeak ezartzen duenez, oinarriko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarriko unitatea dira, eta udalak dira haien titularrak. Zerbitzu horien kostua, berriz, erregelamendu bidez ezarriko da.

Dekretuaren aurreproiektuan finantzaketa sistema bat ezartzen da, lau programa ezarri ahal izateko, gutxieneko ekipo batekin eta finantzaketa misto batekin (zati bat finkoa eta bestea aldakorra).

Lau programa horiek beharrezkoak dira, laguntza integral eta integratzaile batekiko osagarriak direlako, pertsonen errehabilitaziorako, laguntzarako, sustapenerako eta prebentziorako ekintzak baliatuta.

Dekretuaren aurreproiektuak, ordea, lehenbiziko bi programak baizik ez dizkie ziurtatzen herritar guztiei –Harrera eta Orientazio Sozialekoa eta Autonomia Pertsonalaren Sustapeneko–; izan ere, gainontzeko programak 5.000 biztanleko eta hortik gorako oinarriko osasun eskualdeetakoentzat soilik izanen dira.

Egun lanean ari diren langileak ere ez ditu ziurtatzen; izan ere, aurreproiektuaren eranskineko taulako ratioen arabera, udalen etxez etxeko laguntza zerbitzuetako egungo familia-langileen erdia baizik ez da finantzatuko.

Foru dekretuaren aurreproiektuaren zati handi bat oinarriko gizarte zerbitzuen eta zerbitzuek horiek ematen dituzten programen finantzaketari buruzkoa da. Baina zehaztu gabe gelditzen dira funtsezko zenbait alderdi, esate baterako oinarriko osasun eskualdea, lanbidearteko gutxieneko ekipoa eta aipatzen diren eskualdeko ekipoak.

Foru dekretuaren aurreproiektuak zehaztu gabe uzten du finantzaketaren zati aldakorrenako modulua, Gizarte Gaietako Zuzendaritza Nagusiak urtero onetsiko duelako ebazpen bidez. Horrek, jakina, ziurgabetasuna eta bezerokeria dakarkie udalei.

Foru dekretuaren aurreproiektuak, azkenik, gizarte zerbitzuak pribatizatzeke atera irekitzen du inondik ere; izan ere, ezartzen duenaren arabera, toki entitate batek hirugarrenekin hitzartu ahalko du oinarriko gizarte zerbitzuetako lau programak osorik edo hein batean betetzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarriko gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzko dekretuan ezar dadin, gutxienez ere, egungo profesionalen plantillak eta gaur arteko finantzaketa ziurtatzeko pertsona kopurua.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte zerbitzuen oinarritzko barrutiak ziurtatuta izan dezan behar adina langile izanen duela, osasun eskualdeak duen modu berean, araudi hori baliatuko baitute gizarte zerbitzuek maila bereko beste bat onetsi arte.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar bezala balora ditzan

familia-langileen ratioak, udalek etxez etxeko laguntza eman ahal izan diezaieten mendekotasuna onartzen zaien pertsoneri nahiz, mendekotasuna izan gabe, laguntza behar dutenei eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko, era horretan aurrea hartzen baitzaio mendekotasunari.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean eztabaida eta onets dadin. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak agerraldia egin zuen azaroaren 20an, halako gaiez arduratzen den batzordean,

departamentuak indusketen eta ondare arkeologikoaren arloan eginiko lanaren, lortu nahi ziren helburuen eta abian diren jarduketan balantzea egiteko.

Talde guztiek, Gobernuari babesa ematen diotaren salbuespenarekin, nabarmendu zuten egindako lanaren garrantzi kuantitatiboa eta giza baliabideen eta baliabide materialen arloko zenbait gabezia konpondu beharra.

Gabezia horiei ekin ahal izateko eta konpontzeko aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrean aurkez ditzan indusketen eta ondare arkeologikoaren arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak, bereziki ondokoak:

– Aurreikusitako administrazio-egitura eta egitura hori hobetze aldera har litezkeen neurriak.

– Aztarnategi bereziki garrantzitsuen indusketa plana eta plan hori gauzatuko duten giza-ekipoak.

– Intereseko aztarnategietan esku hartzeko plana eta ekipo arduradunak.

– Larrialdiko jarduketak, hala aurreikusitak nola aurreikusteko modukoak.

– Aztarnategiak museo bihurtzeko eta horien zabalkundea egiteko jarduketak.

– Argitalpenak eta bestelako materialak, baldin eta halakorik badago.

– Santa Crizi buruzko Plan Zuzendaria abian jartzeko eta garatzeko berariaz aurreikusitako jarduketak.

2. Jarduketa plan hori otsailaren 1a baino lehen

aurkeztu beharko da Parlamentuan, batzordeak hil horretan eztabaidatu ahal izan dezan.

Iruñean, 2009ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak herritar guzti- dei egiten die abenduaren 1ean Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Abenduaren 1ean Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Egun horretan gogoratzen ditugu pandemia horrek kaltetutako pertsonak, gurekin daudenak eta jada ez daudenak, eta gaur egun gure herrialdean bizi dugun egoeraz ohartarazi nahi dugu.

Gaur egun, egoera oso bestelakoa da duela zenbait urte bizi genuenarekin alderatuz gero; izan ere, etsipena itxaropen eta bizi-nahi bilakatu da. Hala ere, horrek ez du galarazi gaixotasun horrek mila pertsona baino gehiago hiltzea urteko gure herrialdean, ez eta urtero hiru mila kasu berri diagnostikatzea ere.

Munduan 33 milioi pertsona bizi dira GIBarekin edo Hiesarekin; horietatik erdia baino gehiago 15 eta 49 urte bitarteko emakumeak dira. Zenbaki horiek erakusten dute pandemiak emakume aurpegia duela; hori dela eta, emakumeek arreta berezia behar dute. Esan behar da hori ez dela gertatzen garatzeko bidean diren herrialdeetan soilik.

Soilik urtean 2,7 milioi pertsona kutsatzen dira eta 2 milioi pertsona hiltzen dira gaixotasun horren ondorioz. heriotza kopuru horren % 70 Saharaz beherako Afrikan gertatzen da, baina, gaur egun, Europako ekialdean eta Asian ari da gehien hazten heriotza kopurua.

Kutsatu berrien % 45 15 eta 24 urte bitarteko pertsonak dira. Bestalde, ez da lortzen ari amengandik haurrenganako transmisioa murriztea –aldiz, goraka doa–, transmisio mota hori kontrolatzeko tresnak badiren arren.

Gaur egun, zenbait aurrerakuntzen eraginez etorkizuna itxaropentsu ageri da tratamenduei

dagokienez, baina oraindik badira pertsonak aukera horiek baliatu ezin dituztenak, gaixotasunaren bilakaeraren ondorioz hondatze fisiko nabaria dutelako edota baldintza-berdintasunean bizitzea eragozten dien gizarte-bazterketa egoeran daudelako.

Aurrerapen handiak egiten ari dira farmakologiaren arloan, eta horrek, teoriarik, ahalbidetzen du GIBa edo hiesa duten pertsonen bizitza arrunta egitea eta gizartean erabat integratzea. Baina, tamalez, aurkitzen dutena tentsio giroa da, non GIBarekin lotutako aurreiritzien, estigmaren eta bazterkeriaren ondorioz, aukera gutxiago dituzten erabateko herritartasuna baliatzeko.

Gaur gogoratzen dugu behin eta berriro urratzen direla GIBa eta hiesa duten pertsonen oinarritzko eskubideak; izan ere, batzuetan ukatzen zaie oinarritzko gizarte eskubideak baliatzeko aukera, hala nola gizarte zerbitzuen arloan, osasun zerbitzuenean, prestakuntza arloan, lan arloan eta parte hartzearekin eta aisiarekin zerikusia duten zerbitzuen arloan, esaterako, etxebizitza bat baldintza-berdintasunean eskuratzerakoan edo aseguru bat kontratatzerakoan, soilik GIBa izate hutsagatik, patologia horrek jarraitzen baitu gaizki ikusitako edo ezarritako usadioetatik kanpo dauden portaerekin lotuta.

Gure ustez, ardura politikoa dugun pertsonok jarraitu behar dugu egoera hori arintzeko ekimenak eta ekintzak bultzatzen eta egunez egun GIBaren eta hiesaren alorrean lan egiten duten pertsona eta entitateekin lan egiten, horiek errealitatearen ezagupen zuzena baitute. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak ekarpen oso positibo gisa goraiatu nahi du administrazio publiko guztiek, osasun arloko profesionalak eta gobernuz kanpoko erakundeek nahiz gizarte zibileko beste egitura batzuek (hala nola hiesaren aurkako

Nafarroako Batzorde Herritarrak eta Sare Elkartek, Nafarroan, eta CESIDA elkarteak, Estatuan) gaixotasun hau desagerrarazteko eginiko lana.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die parte har dezaten abenduaren 1ean hiesaren kontrako nazioarteko eguna

dela-eta antolatzen diren ekitaldi guztietan, bereziki, eguerdiko 12:00etan Parlamentu aurrean egingen den elkarretaratzean.”

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, *Diario de Navarra* egunkariaren aurkako eraso delata eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Iragan osteguneko goizaldean, *Diario de Navarra* egunkariaren Iruñeko bulegoari eraso egin zioten jaurtigai su-eragile baten bidez, eta horren ondorioz kalte material garrantzitsuak izan dira lokalean. Eraso berri horren aurrean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki du:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du irmoki gaitzesten duela *Diario de Navarra* egunkariaren bulegoen aurkako erasoak. Halaber, elkartasuna eta hurbiltasuna adierazten dizkie enpresa hori osatzen duten guztiei eta animatzen ditu, aldi berean, irmo jarrai dezaten beren informazio-jarduera askatasunez garatzen terroristen aurrean, horretarako irakurleen, erakundeen, foru erkidegoaren eta Nafarroako gizarte demokratiko osoaren babesa baitute.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak uste du *Diario de Navarra* egunkariaren aurkako erasoak adierazpen askatasunaren eta informazioa eta iritziak zabaltzeko eskubidearen aurkako eraso larria dela, eta eskubide horiek ezinbestekoak direla Nafarroakoa bezalako gizarte demokratiko batean, zeina terroristek mendean hartu nahi baitute.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak babesa agertzen die informatzeko eskubidea baliatuz askatasunez eta ausardiaz ETaren erailketak eta erasoak gaitzesten dituzten hedabideei –eraso terrorista baten biktima izan den *Diario de Navarra* egunkaria, kasu– eta, erakunde demokratikoen moduan, zuzenbide estatuaren, Konstituzioaren eta Foru Hobetzearen balio eta oinarriak defendatzen dituztenei terroristen izuaren eta xantaiaren aurrean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariko konpromisoen sinesgarritasunari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariko konpromisoen sinesgarritasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2003ko apirilean, 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzendariaren aurkezpenean, hauxe esan zen hitzez hitz:

“Hori dela eta, Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzendariaren apustu estrategikoa da bere indarraldia amaitzean Nafarroako herritarren % 99 egotea edukiera handiko errepide batetik 20 minutu baino gutxiagora.”

Gaur, 2009ko azaroak 23, Nafarroako Gobernuak, astelehenero egiten duen bileran, 2009-2016 urteetarako Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzendaria onetsi du, eta horren kariatara Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak igorritako prentsa oharraren 2. orrialdeko 2. lerrokadan ondokoa esaten da:

“Plan honen indarraldia amaitzean, Nafarroako lurraldearen zati handiena eta herritarren % 99 baino gehiago egonen dira edukiera handiko errepide batetik 20 minutu baino gutxiagora.”

Zintzoki uste al du kontseilari andreak orain adierazitako konpromisoak baduela sinesgarritasunik Nafarroako azken erroldan agertzen diren 620.377 biztanleetatik batentzat ez beste guztientzat?

Iruñean, 2009ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, iragan azaroaren 21ean kulturaren alde ehunka pertsona mobilizatu izanari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, iragan azaroaren 21ean kulturaren alde ehunka pertsona mobilizatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean erantzun dezan.

Kultura eta Turismoko kontseilariaren ustez, zergatik azaroaren 21ean, larunbata, ehunka pertsona bildu ziren Iruñean "Por Amor al Arte" goiburupean eta Nafarroako kultura plan baten alde?

Iruñean, 2003ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, kultur eskaintzari dagokionez Nafarroa erkidego okerrenetakoen artean egoteari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, kultur eskaintzari dagokionez Nafarroa erkidego okerrenetakoen artean egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Batzordean erantzun dezan.

Fundación Contemporánea elkarteak kulturaren arlo guztietako ehunetik gora adituren iritziekin eginiko txostenetik ondorioztatzen denez, Nafarroa okerren baloratutako autonomia erkidegoetako bat da, kultur eskaintzaren kalitateari eta berrikuntzari dagokienez. Kultura eta Turismo kontseilariaren ustez, zein da horren arrazoia?

Iruñean, 2009ko abenduaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Fundación Contemporánea plataformak eginiko diagnosiari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Fundación Contemporánea plataformak eginiko diagnosiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Contemporánea fundazioa kulturaren alorreko diziplina desberdinetako profesionalen topagune eta eztabaidagunea da eta La Fábrica-ren ekimenez sortu zen. Haren helburua da sorkuntza garai-kidea sustatzea, talentu gazteen lana bultzatzea eta kultura zabaltzea eta sustatzea, gure garaiko ondasun kolektibo garrantzitsuenetako bat baita. Contemporánea fundazioak egiten duen lanaren ardatza da ezagutzaren informazio eta transmisio sareak sortzea.

Halaber, aipatu fundazioak Kulturaren Behatokia sortu du, eta horrek kontsulta egin dio, lehenbi-

ziko, ehun lagunez osatutako aditu talde bati, non ageri baitira sortzaileak, kritikariak, espezialistak, programatzaileak, erakundeetako eta kulturaren arloko kudeatzaileak eta administrazio publikoko kultur arloko arduradunak.

Kontsulta horren emaitzak adierazgarriak dira. Ikerketak azpimarratzen du sorkuntza, dinamismoa eta berrikuntza direla Espainiako kulturaren indarguneak, eta, horretaz gain, mapa bat jasotzen du, non autonomia erkidegoak eta hiriak eskaintzen duten kultur programazioaren arabera ebaluatuta agertzen baitira.

Autonomia erkidegoen mapan hiru maila ageri dira, erabat bereiz. Nafarroa hirugarren mailan ageri da, Kanariak, Balearrak, Extremadura, Kantabria, Aragoi, Gaztela-Mantxa, Errioxa, Ceuta eta Melillarekin batera.

Hirien mapan hamar hiri nabarmenenak agertzen dira. Hala, Donostia, Gijón, León eta Santiago agertzen dira, antzeko tamainako hirien artean. Baina ez dago Iruñearen arrastorik, nahiz eta hiri hori, dituen azpiegiturak kontuan hartuta, toki nabarmen batean ager zitekeen.

Hori ikusirik, ondoko ahozko galdera egin nahiko nuke:

- Nafarroako Gobernua bat al dator Contemporánea fundazioak eginiko diagnosiarekin? Egokia iruditzen al zaio kultur ekintzaren plan zuzendari bat egitea Nafarroan? Zer neurri hartuko ditu etorkizun hurbilean ikerketan ageri diren gabeziak arintze aldera?

Iruñean, 2009ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarriari buruzko Planaren gainekoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapen Iraungarriari buruzko Planaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako kontseilari eskudunak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Landa Garapen Iraungarriko Planari buruzko galdera

1. Zer irizpide erabili dira erabakitzerakoan zer udalerrri edo eskualde sartu garapen plan horretan?

2. Zergatik utzi dira planetik at Gesalatz, Arroitz, Aberin, Deikaztelu, Arellano eta Morentin?

Iruñean, 2009ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioari buruz:

Kultura eta Turismo kontseilariak, 2008ko otsailaren 12an, eledun honek Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioarekin lotutako zenbait gairi buruz eginiko galdera bati erantzun zion. Gertaeren bilakaera ikusirik, hau jakin nahiko nuke:

Galderaren testua:

1.- 2008ari dagokionez:

– Nafarroako aurrekontu orokorretan fundazioari zuzenean esleitutako zenbatekoa.

– Fundazioak kudeatutako zenbatekoak, esku hartu duen lanetako bakoitza xehakaturik.

– Edozein pertsona fisiko edo juridikorengandik, publikoa nahiz pribatua izan –Administrazioa alde batera utzita–, eratorritako baliabide guztiak,

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186.

fundazioak kudeatu dituenak, eta baliabideen zenbaterako osoarekiko portzentajea.

– Entitate garrantzitsuenak eta ekarpen esanguratsuenak.

– Departamentutik kanpoko taldeekin kontraturiko obrak.

2.- 2009ari dagokionez:

– Nafarroako aurrekontu orokorretan fundazioari zuzenean esleitutako zenbatekoa.

– Fundazioak kudeatutako zenbatekoak, esku hartu duen lanetako bakoitza xehakaturik.

– Edozein pertsona fisiko edo juridikorengandik, publikoa nahiz pribatua izan –Administrazioa alde batera utzita–, eratorritako baliabide guztiak,

fundazioak kudeatu dituenak, eta baliabideen zenbaterako osoarekiko portzentajea.

– Entitate garrantzitsuenak eta ekarpen esanguratsuenak.

– Departamentutik kanpoko taldeekin kontraturiko obrak.

3.- Patronatuaren osaketa aldaketarik izan al du azken bi urteotan?

4.- Nafarroako Gobernuak esaterik ba al dauka haren helburu, egitura eta funtzionamenduari eragiten dion aldaketarik izanen den epe laburrean?

Iruñean, 2009ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Baztanen azaroaren 14an izandako baso-suteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Iragan azaroaren 14an, lau hektarea zuhaitzi –haritza eta iratzea– erre ziren Baztanen, sute baten ondorioz.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

• Aipatutakoez gain, zer eragin izan du sute horrek ingurumenean?

• Zer-nolako iritzi du Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak, sutearen eragin ekologikoari buruz?

• Goian aipatu gertaerei buruz eginiko akta eta txosten guztien kopia jaso nahiko nuke.

• Zerk eragin zuen sutea?

Iruñean, 2009ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Aitor Echarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainekoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapenari buruzko 2007tik 2013ra bitarteko Planaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planak 502.354.319 euroko gastu publikoa dakar, guztira. Hori dela-eta, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

1. Zein da Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan Nafarroako Foru Komunitatean guztira betetako gastua 2009an?

2. 2009an eginiko gastutik, zenbat diru jarri du Nafarroako Gobernuak eta zenbat Europar Batasunak FEADER-en bidez?

3. 2009an eginiko gastuetatik, zenbat diru bideratu da nekazaritzaren sektorearen lehiakortasunari buruzko 1. ardatzera? Zenbat bideratu da FEADER-en 2. ardatzera (garapen jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena)? Zein da 3. ardatzera bideratutako diru kopurua? Zein da 4. ardatzera (LEADER) bideratutako diru kopurua? Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuna ardatz bakoitzerako jarritako kopuruak zehaztea nahi nuke.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Krisiaren aurkako Plana izeneko kanpainari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Krisiaren aurkako Plana izeneko kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

- Zer enpresari esleitu zaio Krisiaren aurkako Plana izeneko kanpainaren diseinua? Zenbateko kostua izan du? Zer aurrekontu-lerrori egotzi zaio gastu hori?

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Kriaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Kriaren aurkako Planaren publizitateak eragindako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion:

– Zenbat diru gastatu du Nafarroako Gobernuak Kriaren aurkako Planaren publizitatea egiten?

– Zer hedabidetan eta zer kopuru gastatu ditu Nafarroako Gobernuak Kriaren aurkako Planaren publizitatea egiten?

– Zer aurrekontu-lerrori egotzi zaizkie gastu horiek?

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, txerri-aziendaren ustategietan minda tratatzeko sistemei buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, txerri-aziendaren ustategietan minda tratatzeko sistemei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

• Zergatik ITGk, txerri ustategietarako ingurumen arloko baimen integratuak emateko, eskatzen du minden tratamendua hodi zintzilikatuen bidez egin dadin? Ba al da araudirik hori eskatzen duenik? Ba al da mindak tratatzeko bestelako sistemarik?

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Lekunberri-Albiasu saihesbide berriari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Lekunberri-Albiasu saihesbide berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Herrilantetako kontseilariak 2008ko azaroaren 25ean inauguratu zuen Lekunberriko saihesbidea-Albiasu bidegunea. Nafarroako Gobernuak 1.298.298 euro inbertitu zituen Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariko obra horretan. 2012ko Nafarroa Planean ere ageri zen jasota saihesbidea. Obraren finantzaketa SPRIN-Nafarroako Azpiegituren eta Inbertsioen Sozietate Publikoari agindu zitzaion.

743.5 metroko bide berria Albiasuko errepide egin beharreko biribilgune batetik abiatu eta zeharbideko iparraldeko mugako biribilgunean bukatzen da, A-15 autobioiako sarbideak eta Leitzaoko eta Donostiako errepide zaharrek bat egiten duten tokian.

Saihesbide berria 10 metro zabal da guztira, 3,50 metroko zabalerako bi galtzada eta 1,50 metroko bi bazterbide baititu. Proiektuan jasota zegoen 0+445 kilometro puntuan hormigoizko arku tri-artikulatua eta argi zuzeneko egitura isostatikoko 11,50 metroko zubi bat egitea Azin ibaia-aren gainean.

Errepidea orain dela urtebete inauguratu zen, eta aste honetan berean ikusi dugu pitzadurak agertu direla eta luiziak gertatu direla Lekunberriren eta Albiasuren arteko errepide berriko asfaltan; horren ondorioz, errepidea itxita dago orain dela bi egun baino gehiago.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zer kalte ditu Lekunberriren eta Albiasuren arteko errepideak?

2. Zerk eragin ditu kalte horiek?

3. Zer neurri zuzentzaile hartuko dira?

4. Eraikitzaileak bermaturik al ditu kalteak? Bermerik ez badago, zer gastu ekarriko ditu errepidea leheneratzeak?

5. Zein kontusailekin finantzatuko da obra hori?

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero